

## ITURRIAGA-REN OMENALDIA

*Hernani-n, 1978, urtarrilak 28*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

Gipuzkoako Gobernari jauna eta gainerako agintari leialak,

Inazio Iruin, Hernani-ko alkate jauna,

Euskaltzaindiko jaunak,

Hernaniarrak, eta ospakizun hontara hainbeste lekutatik etorri zareten jaun-andreak:

Agur bero bat eta ongi etorria guztioi!

Euskaltzaindiak, Hernani-ko herriarekin batean, batzarrere ageria egion nahi izan du hernaniar ospetsu baten oroitzapenetan. Iturriaga apaiza, euskal idazlea, jaio zela oraintxe betetzen baitira berrehun urte.

Baina ba ote du horrenbesteko mailarik gizon honek gorazarre hau egin dakion?, galde lezake zenbaitek. Bai, ondotxo irabazia du Iturriagak gaurko omenaldia. Lehenik eta hasteko, gutxi bezala ikusten dugu apaiz jaun hura Euskal Herriko gauzeekin, eta batez ere euskararekin, zaletua eta bat egina. Eta bigarrenik —eta hau da ohargarriena— goiz asko konturatu zen bera eskolak euskararen iraupenerako duen garrantziaz. Eskolatik zetorkiola euskarari ajea, eta han bertan ipini behar zitzaiola erremedioa. Hori salatu zuen goraki, eta behar zen lekuan salatu ere, hots, Gipuzkoako Foru batzarrean.

Baina esatea eta salatzeari guti eritzirik, lanari lotu zen. Eskola bat zuen hemen Hernani-n bertako gazteak eskolatze-ko, eta bertan sarrera handia eman zion euskarari. Ez zen euskara hutsezko eskola. Berak konprenitzen zuen erdara ere ikasi behar zela, baina nola? Ez euskara erabat baztertuz eta debekatuz. Lehenbizikorik, euskaratik hasi, euskaraz irakur-

tzen eta idazten euskaldun haurrei irakatsi, eta gero euskararen bidez baita erdara ere irakatsi. Hau zen haren bidea.

Hara zer dioen hitzez-hitz Iztuetari egindako eskutitz batean:

“Orain dala saspi urte humechoaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nuben cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderas gaiztia i iracurtcen eracusteaquin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea...

Ala bada, iduritcen zat eusquerasco liburuetan bear litzaqueala gure escoletan eracutzi iracurtcen erderascoetan asi baño leen...

Beti naigabe andi batequin ecustenditut gure mutilchoac iracurtcen erderasco liburuac, monjac latinescoac becela, cer iracurtcen duten ezdaquitela, eta adinic onena ecer icasi gabe iragotcen zaiotela. Astaqueria andia arantzas betericaco bidetic sasi mendira eramatia, loresco bide zabal ederretic fruta gozos betericaco baratzara eraman bearrean” (1).

Asmo hau praktikara eramateko, ordea, tresnak behar ziren, irakurgaiak, etab. Eta hoiiek ere eman zizkigun Iturriagak. Hortarako argitaratu zuen hemen Hernanin *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* izena duen liburuxka zoragarri bat, gero Bonaparte Printzipearen aginduz beste euskalkietara ere itzuliko zena. Eta hori gutti balitz, hurrek hain maite dituzten alegia edo fabulak ere landu zituen. Segur-aski Iturriaga dugu alegilari zaharren artean goreneko maila iritsi duena, bere hizkeraren txairotasunaz, gatz eta piperraz lehen tokia zor zaiona.

Hala ere, bizitza ez zen harentzat gozoegia izan. Herbestera joan beharra izan zuen. Gaizki ikusia izan zen, belztua. Eta dirudienez, ez politikan sartzen zelako, sartzen ez zelako baizik. Garai hartan ere Euskal Herria zatikatua zegoen. Borrokan zebiltzan bi partidu nagusi —liberalak eta karlistak—, eta berak ez batarekin ez besteaekin ez zuen bere burua bat egin nahi izan. Berak bakea nahi zuen, anaitasuna, eta Euskal Herriko oinarrizko ondasunak gorde eta salbatu,

---

(1) Ikus JOSE GARMENDIA ARRUEBARENA, *Obras inéditas de Iztueta*; La Gran Enciclopedia Vasca, 1968; 179-180 orrialdeak.

hots, fedea, euskara, fueroak. Ez zen konprenitua izan eta atzerrira joan beharra izan zuen —hobeki esan, Lapurdi alde-  
ra. Arrangoitzen uste dut bizi izan zela zenbait urtez—.

Garmendia apaizak eta Aita Lasak azkenaldi hontan argi berria egotzi dute Iturriagaren bizitza eta pertsona hobeki ezagutzeko. Baina xehetasun hoietan ez naiz sartuko, zeren bada hemen beste hizlaririk gauza hoietaz mintzatuko denik.

\* \* \*

Euskaltzaindiko gure batzarreetan ohitura da, euskaltzain bat hiltzen denean, hurrengo batzarrean haren aipamena egitea.

Eta hain zuzen, kasu honetan gara gaur. *Rodolfo Bozas Urrutia* donostiarra, Madrilen hil zaigu. Bera zen Madrilgo Ateneoko euskal katedraren buru. Aspaldi minbiziak hartua zegoen, baina halaz ere katedraren ardura ez zuen behin ere utzi. Ez da hau une egokia haren lanez luze mintzatzeko. Bakarrik esango dut *Atheka gaitzeko oihartzunak*, Daskonagerre-ren liburu famatua, euskaratik erdarara itzuli zuela eta argitalpen eder bat prestatu aurrez-aurre bi testuok jarririk: euskarazkoa eta erdal itzulpena. Eta hil baino lehentxeago bere aita zenaren librua *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*, erdaraz eta euskaraz hau ere. Hemen erdaratik euskarara itzulpenaren egile izan da Rodolfo jauna. Itzulpenetan gailurtu da batez ere Rodolfo Bozas jauna.

Organu jolea zen Rodolfo. Hain zuzen, nik lehenbiziko aldiz, duela urte asko, Madrilen San Francisco El Grande-ra organu jotzera zetorren batean ezagutu nuen.

Goian bego gure lagun zaharra.

\* \* \*

Eta honenbestez, agurrezko hitz hauk bukatzeko, esker-  
rak ematea beste lanik ez zait gelditzen.

Eskerrak eta zorionak gaur euskal irakasle titulua jasotzera etorri zaretenoi.

Eskerrak eta zorionak Hernani-ri, Iturriaga bezalako semea Euskal Herriari eman baitzion.

Eskerrak gaurko jaialdi eta ospakizuna prestatzen lagundu diguten guztiei.

Eta azkenik, eta batez ere, eskerrak zuri, alkate jaun, jaialdi hau eratzeko eskeini dizkiguzun orotariko erraztasu-nengatik.

\* \* \*

Orai segituan euskal irakasle tituluen banaketa egingo da. Urriko azterketetan garaile irten zirenei hartako diploma emango zaie, alegia.

Ez dakitenen faboretan hitz gutxitan esango dut zer den euskal irakasle titulu hau. Izango dira sei-zazpiren bat urte Euskaltzaindiak titulu hau sortu zuela. Jakina, euskararen irakaskintza behar bezala taxutua eta finkatua balego, Euskaltzaindiak ez luke arazo hontan zer sarturik, erdal Akademia erdal tituluak emateaz arduratzen ez den bezala. Baina edonork daki euskararen irakaskintza ez dagoela erdararen maila berean, ezta hurrik eman ere.

Ikusirik, bada, hil edo biziko problema zela hau gure hizkuntzarentzat —euskara eskola bidez irakastea, alegia—, eta beste aldetik, irakaslerik ez den bitartean problema honek ez duela soluziorik, Euskaltzaindiak pentsatu zuen berari zego-kiola arazo hontan eskuak sartzea.

Izan ere, bera izan zen Euskal Herriko lau Diputazioek euskararen arazoetaz ardura zedin sortua, eta bera da euskara bere hedadura guztian eta batasunezko ikuspegi batekin hartzen duen erakunde bakarra, eskualde eta Euskal Herriko zoko guztietako mandatariak dituena, eta euskara zaintzeko propio eta berariaz jarria dagoena. Arrazoi hoiengatik, bada, Euskaltzaindiak uste izan du berari dagokiola, gauzak egoera hobego batean egon daitezen arte behintzat, titulu arazo honen erantzukizuna beregain hartzea.

Titulu hau hiru mailatan mailakatua dago: gorengoa, erdikoa eta beherekoa. Gorengoa ez zaio oraindik inori eman, beherekoa askori, erdikoa ere zenbaiti. Prograamak egin dira maila bakoitzean zer eskatzen den jakiteko. Kursiloak ere

erutzen dira programako gaiak menderatu nahi dituztenen faboretan, baina, jakina, ez da nahi-eta-nahiezkoa kursillo hoietarik pasatzea. Azterketa pasatzea, ordea, eta hartan garaile irtetzea, hori bai.

Euskaltzaindiaren barnean batzorde berezi bat dago: "Licenciado en Letras" titulua dute batzorde hori osatzen duten guztiek, eta hoiien esku uzten da programak egitea, ikastaroak eratzea, azterketak egitea, etab.

Orai arte egundoko arrakasta izan du euskal irakasle titulu honek. Euskal Herriak, alegia, ezin hobekiago erantzun dio. Horrek esan nahi du arazo honen garrantziaz ohartu dela gure herria. Batez ere gazteen artean hainbeste etorri dira titulu honen eske. Eta horrek itxaropena pizten du gudan etorkizunari buruz.

Ez da erraza izango gaurkoa bezain egoki den beste unerik aurkitzea titulu banaketa hau egiteko. Iturriagak, ikusi dugun bezala, bihotzean tinko ezarria zekarren gure gaurko kezka: euskararen irakaskintza. Eskola emalea izan zen, gainera.

Horregatik, gaurko irakasle berriak hari eskeintzea: hori da —nik uste— Iturriagari egin diezaiokegun omenaldirik ederrena.